



## **ehunmilak, COVID-19 ADIERAZPENA**

ehunmilakeko korrikalari, boluntario, adiskide, laguntzaile eta babesle estimatuak.

**ehunmilak *Ultra-Trail*, goierriko2haundiak *trail* eta marimurumendi *Marathon*** lasterketen zuzendaritzako eta antolakuntzako batzordeko kideok, **COVID-19 Koronabirusak** eragindako egoera sakon aztertu ostean, 2020 edizioko hiru lasterketak **BERTAN BEHERA UZTEA** erabaki dugu.

Gure ustez, ekitaldi hau aurrera ateratzeko orain arte egindako lana eta ilusio guztia ez dira nahiko izango gure lasterketen ezaugarri diren oinarrizko **bi zutabe nagusiak** erabat ziurtatzeko: korrikalarien eta boluntarioen erabateko **segurtasuna** eta lehiaketan **kalitatea**.

Erabaki hau tristura handiz hartu dugu, baina beti bezala, lasterketako protagonistengan pentsatuta. Ziur gaude ulertuko gaituzuela. Horregatik, **ohiz kanpoko** egoera baten aurrean egonik eta gure Araudia alde batera utziz, **IZEN-EMATEAREN %100a ITZULIKO diegu korrikalariei**.

Amaitzeko, gure eskerrik zintzoena adierazi nahi diegu boluntario, laguntzaile eta babesle guztiei. Hurrengo edizioetan ere elkarlanean arituko garela espero dugu. Orain, zuen indar guztia pandemia honen aurka jartzeko ordua da, etorkizun laburrean berriro mendiaz eta mendi lasterketetaz gozatzeko aukera izan dezagun.

**Ehunmilak antolakuntza batzordea**